# «Emakumeok sinetsi behar dugu: berez gai gara ongi erditzeko»

Euskal Telebistako esatari ez ezik, psikologoa ere bada Estitxu Fernandez, eta 'Gure erditzearen jabe' liburua idatzi du

:: FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. Aurpegi ezaguna da Estitxu Fernandez Maritxalar lesakarra, hainbat urtez Euskal Telebistako aurkezle eta esataria izan denez gero. Atzo bera izan zen albiste: idatzi duen 'Gure erditzearen jabe' aurkeztu zuen. Liburu honetan bere hiru bokazioak uztartu omen ditu: amatasuna, psikologia eta kazetaritza.

Psikologia eta irakasle ikasketak egin zituen. Bertsolari ere izan zen, baina batik bat ETBtik atera du bizimodua. Azken urteotan, bereziki psikologiarekin eta amatasunarekin lotutako gaietan trebatu da. Orain haurdun dago, zortzi hilabetekoa, eta ospitalera joango da umea izatera. «Esan digute arrisku dezenteko erditzea izango dela», esan zuen kazetariak galdetu zionean.

«Erditze kontzientearen aldeko liburua da. Emakumeak informazioa eduki behar du, eta hartara kontzientea izango da», jarraitu zuen. Gai honi buruz euskaraz idazten den aurreneko liburua da.

Bi eratako materialak dakartza liburuak: batetik, ebidentzia zientifiko batzuk; bestetik, hainbat lagunen testigantzak, baita Ipar Euskal Herriko batzuenak ere.

«Orain dela zazpi urte hasi nintzen gai hau lantzen. Emagin bat ezagutu nuen, ospitaleran lan egiten zuena, baina berari egokitu zitzaionean etxean erditzea erabaki zuen», jarraitu zuen. «Umea etxean izatea erabaki dutenei arduragabe esan izan zaie. Inkontzienteak balira bezala. Ni ez nator bat. Hala ere, liburua ez da etxean erditzearen aldekoa. Garai batean hagitz medikalizatuak ziren ospitaleko erditzeak, presagatik eta. Konturatu naiz emakumeok erditze fisiologikoa izateko eskubidea dugula. Erditze kontzientearen aldeko liburua da azken finean».

Fernandez Maritxalar pozik dago ospitaletako erditze-eredua ez delako hain medikalizatua gaur egun. «Emakume askok esaten dizute lapurtu egin zietela erditzeko sentsazio hura, baina orain Euskal Herrian gero eta emagin eta ginekologo gehiagok errespetatzen dute erditzera doan emakumeak eskatzen duena, baina beti ebidentzia zientifikoak dioena kontuan izanda».

Zenbaki batzuk garbiak eta tematiak dira. «Gaur egun, Euskal Herrian, hamar emakumetatik zor-tzik hartzen dute anestesia epidurala. Baina ez dezagun ahaztu orain dela 30 urte ez zegoela epiduralik, eta orain mila urte ere ez, jakina. Emakumeok sinetsi behar dugu: berez, ongi erditzeko gai gara. Badugu instintu bat eta jarraitu behar diogu».



Estitxu Fernandez, atzo Donostian. :: IDOIA GONZALEZ

Oso testigantza desberdinak jaso ditu, liburuko hitzaurrean dioenez: «Amatasuna prozesu intimoa baita, arrunt pertsonala, emakume bakoitzak bere modura bizi duena. Jaso ditudan testiganztak ere zeharo diferenteak dira. Hemen agertzen diren emakumeak ez dira berdin erditu, ez dute bide bera aukeratu. Bada, ordea, lekukotasun guztiak harilkatzen dituen zerbait. Kontakizun hauek lotzen dituena, kontzienteki aukeratu izanaren haria da. Liburu honetan agertzen diren emakumeek, erditzearen ardura euren gain hartzea erabaki dute bertze inoren bizkar utzi gabe».

> «Gero eta ginekologo gehiagok errespetatzen dute erditzera doan emakumeak dioena»

> «Ez dago erditze natural edo ez-naturalik. Bi muturrak ideologia dira»

Bestalde, muturretatik ihes egin du: «Ez dago erditze natural edo ez-naturalik, batzuk medikalizatuagoak dira, bertze batzuk fisiologikoagoak, eta guztiak erditzeak. Emakume guztiak gara desberdinak eta iritzi-korronteak arriskutsuak izan daitezke emakume bakoitzaren errealitatea kontuan hartzen ez badute. Muturretan ez dago aniztasunarentzat tokirik, oinarri sendoagoa edo ahulagoa izan, bi muturrak ideologiak dira».

Estitxuren umea ez da oraindik jaio, baina dagoeneko protagonista da liburuan. Amak eskaintza hau egin dio hitzaurrean: «Oraindik jaio ez zaren arren, dagoeneko erakutsi didazun guztiagatik, eskerrak aunitz zuri, Lur. Ezin dut hitzez azaldu ematen didazun guztia».

# Sanidad regulará la venta de productos de homeopatía

El Ministerio autorizará la comercialización de miles de productos que tendrán que cumplir una serie de requisitos

:: AGENCIAS

MADRID. Sanidad va a regular los requisitos necesarios para la comunicación de los productos homeopáticos y su autorización de comercialización. Según un borrador de la orden ministerial, para obtener la autorización estos productos tendrán que cumplir unos requisitos, parecidos a los exigidos a los medicamentos de uso humano fabricados industrialmente. Así, deberán incluir en la comunicación datos como el nombre, si tiene indicación terapéutica, las condiciones de prescripción, los datos del fabricante y la autorización en algún país de la UE. Se considera medicamento homeopático el obtenido a partir de sustancias denominadas cepas homeopáticas, con arreglo a un procedimiento de fabricación homeopático descrito en la Farmacopea Europea o en la Real Farmacopea Española o en su defecto en una farmacopea utilizada de forma oficial en un país de la UE.

Un medicamento homeopático podrá tener contener varios principios activos y todas las disoluciones de un medicamento formarán parte de la misma autorización de comercialización, explica la orden ministerial. También indica que aquellos medicamentos que pretendan permanecer en el mercado, deberán presentar solicitud de comercialización de nuevo registro de acuerdo con lo establecido por la Agencia Española de Medicamentos y Productos Sanitarios. El borrador debe ser revisado en el marco del Consejo Interterritorial del Sistema Nacional de Salud, aunque según fuentes de Sanidad , todavía no se ha acordado si este asunto será analizado en la reunión prevista para este mes.

El coordinador del Grupo de Trabajo de Utilización de Fármacos de la Sociedad Española de Medicina Familiar y Comunitaria (SemFYC), Miguel Ángel Hernández, considera «positiva» la decisión del Ministerio de Sanidad de regular los medicamentos homeopáticos para garantizar su calidad y eficacia, ya que se trata de unos productos que se encuentran en un «limbo legal». «Cuanta más información tengamos de estos productos y de quién los produce y los está tomando, mejor», reconoció este experto

Uno de cada tres españoles ha recurrido a la homeopatía en alguna ocasión y un 27% lo hace de forma ocasional o regular, en un país donde más de 10.000 médicos la integran en su práctica diaria, según recoge el Libro Blanco de la Homeopatía. En España la homeopatía supuso en el año 2011 una facturación de sesenta millones de euros.

# Fomento prohibirá usar el teléfono móvil a los maquinistas de tren

Es una de las veinte medidas para reforzar la seguridad ferroviaria tras el accidente del Alvia del pasado julio

:: DV

MADRID. Los maquinistas de tren tendrán prohibido, salvo en casos de emergencia, utilizar el teléfono móvil en la cabina de los trenes, que contarán con un canal único integrado de comunicación, según anunció ayer la ministra de Fomento. Esta es una de las veinte medidas para reforzar la seguridad ferroviaria que Ana Pastor anunció en el Congreso tras el accidente del Alvia que se registró en Santiago en julio.

Según avanzó durante su intervención ayer en los Desayunos Informativos de Europa Press, figura también la revisión del cuadro de velocidades máximas de toda la red ferroviaria que encargó realizar tras el siniestro. Entre las medidas destaca la colocación en los trenes de un registro jurídico, «una 'caja negra' similar a la de los aviones», que grabará todo lo que suceda en el interior de la cabina del tren. La ministra reveló también que Renfe ha alcanzado un acuerdo con tres empresas tecnológicas para poner en marcha en breve un programa piloto, que concluirá el 30 de abril de 2014, con el fin de testar el uso de un navegador en la conducción ferroviaria.

Fomento ya ha puesto en marcha la Agencia Estatal Ferroviaria, un organismo que garantizará el cumplimiento de la normativa de este sector de transporte. Pastor aseguró que continúa con el «apoyo permanente» a las víctimas del accidente y sus familiares.